

GRADU AMAIERAKO LANA

**AMATASUNAK ARTE GARAIKIDEAN**

ARTEAREN HISTORIAKO GRADUA

Artearen Historia eta Musika Saila

2017-2018

TUTOREAK: ANDERE LARRINAGA ETA HAIZEA BARCENILLA

EGILEA: LEIRE GARDIEL UNZUETA

## LABURPENA

Lan honetan, arte garaikidean amatasunaren gaia nola lantzen den aztertu nahi dugu. Gaia heldu ahal izateko lana bi ataletan banatu dugu, ondorengo hurbilketa modua planteatuz:

Lehen atalean, feminismoaren eraketa eta garapen orokor bat azalduko dugu, arte garaikidean emakumeek hartu duten garrantzia eta indarra ulertzeko ezinbestekoa dela pentsatzen dugulako. Teorilari garrantzitsuenetarikoz batzuen ekarpenaz baliatuko gara, emakumeek gizartearekiko hartuko duten konpromisoa eta artean irekiko den begirada berria ulertu ahal izateko. Mugimenduaren barnean sortu diren adar desberdinak aipatuko ditugu eta bakoitzaren berezitasunen bat azalderatuko dugu. Zehazki, berdintasunaren aldeko feminismoa, ezberdintasunaren aldekoa eta sozialistaz arituko gara, egun ematen ari den korrontean amaitzeko.

Emakumeek, artean, amatasunari eskaini dizkioten lanen errebaso txiki bat egingo dugu, Louise Bourgeois, Mary Kelly, Marina Abramovic, Tracey Emin eta Ana Álvarez-Errecalde-ren artelanen bitartez, gaiaren estetika narratiboek jasan duten aldaketa azkarraren kontzientzia izan eta emakumeen ahalmentze prozesuaren lekukotza izateko.

Bigarren atalean, egungo amatasunak agerian jarriko ditugu arte garaikidearen bitartez. Honetarako, lau azpi atal irekiko ditugu. Gai bera abiapuntu izanik lanek hartzen duten noranzko ezberdinak azalderatzea interesatzen zaigu eta aniztasunaren garrantzia azpimarratzea. Pello Ulazia-ren obrak, *Isilean*, aitatasunaz, maskulinitate berriez eta berdintasunaz hitz egingo digu. Maria Llopis-en *Maternidades subversivas* liburua aitzakia, post-pornoaren mundua ezagutuko dugu, ezberdintasunaren aldeko feminismoak sexuarekiko duen konpromisoa amatasun denboraldira zuzentzen baitu. Ana Casas-en *Kinderwunsch* lanak etxeko esparru pribatua, ama-eme erlazioak eta norbanakoaren barne pentsamenduak ikustera gonbidatuko gaitu. Eta azkenik, *Offmothers* taldeak, elkar lanaren indarra eta garrantzia azalderatuko digu. Amak diren artista talde honen proiektuak arduaren partekatzea gizarte osoaren erantzukizuna dela erakutsiko digu.

Amaitzeko, lanaren ideia nagusien errebasoa egingo dugu hausnarketa eta ondorioei bidea irekiz. Lanetik ateratzen ditugun gogoeta aipagarrienak honakoak lirateke: emakumeek gorputzaren bitartez espresatzeko modua aurkitu dutela, honek duen ahalmen estetikoaz baliatuz; eta aniztasuna ikustaraztearen garrantzia ezinbestekoa

dela gizarte tolerante eta konprometitu bat eraikitzeko, berdintasuna eta errespetua denon partaidetzarekin lortuko baitugu.

## AURKIBIDEA

SARRERA .....	5
1- EMAKUMEAK ARTE GARAIKIDEAN.....	7
2- EGUNGO AMATASUNAK ARTEAREN BITARTEZ.....	14
2.1- GIZONEZKOEN BEGIRADA BERRIA .....	14
2.2- AMATASUN IRAULTZAILEAK .....	19
2.3- BENETAKO EMAKUME INPERFEKTUAK.....	24
2.4- TALDE-LANA.....	28
ONDORIOAK .....	31
BIBLIOGRAFIA .....	33
WEBGRAFIA.....	36

## SARRERA

Gradu amaierako gaiaren aukeraketa ez zitzaidan batere zaila egin. Nire bizitza pribatuan eman zen gertaera baten ondorioz nire ekintzak eta pentsamenduak bide bakar batera bideratzen baitira duela urte eta erdi ezker. Beñatek urte bat du, baina nire kezka eta gogoetak haurdunaldi fisikoarekin batera dimentsio pentsaezinetaraino hazi ziren.

Erantzukizun eta errealitate berri honen aurrean bizipoz eta buruhaustek egunero berriak eta kontraesanek beteak datoz. Bizi esperientzia errepika ezin baten aurrean nagoela jakinik, barneratzen ari naizen ezagutza berri guztien bilduma bat egitea da nire nahia.

Arte garaikidean amatasunaren inguruko esperientzia anitzak nola jorratzen diren ezagutzea dugu helburu. Gaur egungo hainbat artista eta artelanen azterketa izango da gure metodologia. Artisten elkarrizketak, ideia teorikoak eta hauen lanen narratiben planteamenduak adituen pentsamenduekin eta arte kritikarien artikuluekin egiaztatuko ditugu, egungo egoeraren inguruan ondorioak ateratzeko. Iturriak, web orriak, iturri hemerografikoak, elkarrizketak, aldizkari zein egunkarietako artikulua eta liburuak izan dira, artista bakoitzaren arabera, iturri bat edo beste erabiliaz.

Aipatzekoa da, artelanen garaikidetasuna dela eta, erabili ditugun iturriak ohizko ofizialeetatik aldentzen direla hainbat kasutan.

Gauza jakina dugu jada, Artearen Historia gizonengandik eta gizonentzat idatzia dagoela bere sorreraz geroztik; alabaina emakumeok azken bi mendeotan eta gutxiengo baten eskutik, parte hartzeari ekin diogu. Bide erakusle haiei esker emakumeok gizaratean zer esan eta zer egin handia dugu. Ikusgarritasuna etenik gabeko eraketa bat da. Egun, ez litzateke posible proiektu hau bezalakorik, landu eta sortu diren esparruen eratzailerik gabe. Emakume ausart eta iraultzaile guztiei eskainia dago lan hau, beraien lanek argitu baitute lan honen bidea. Artearen historian ere ikuspegi feminista hori azaleratzeko ezin bestekoak egin zaizkigu Griselda Pollock-en *Visión y diferencia: Feminismo, feminidad e historia del arte* edo Patricia Mayayo-ren *Historias de mujeres, historias del arte* liburuak, baina gehiago izan dira ikuspen zabalagoa izateko lagungarriak izan zaizkigun egileak: Simone de Beauvoir, Celia Amorós eta Susana Gamba besteak beste.

Amatasunaren inguruan hitz egiteak, emakumearen egoera aipatzea dakar. Horretarako, amatasuna aitzakia eta artea gidari, emakumeak arte sortzaile moduan aztertuko ditugu, begirada berri baten kontzientzia sortuz. Louise Bourgeois, Mary

Kelly, Marina Abramovic, Tracey Emin eta Ana Álvarez-Errecalde-ren obrez lagunduko gara bidai honetan.

Arte garaikidean emakumeen ahalmentzeak hartu duen indarra amatasuna jorratzen duten adibideen azterketetan zehar ikusiko dugu: Pello Ulaziaren obraren bitartez aitatasuna eta berdintasunerako bidea ekin duen maskulinitate berria ezagutuko dugu. Maria Llopisen eskutik, post-pornoaren ideiak ulertzen saiatuko gara, desberdintasunaren aldeko feminismoak sexualitatearekiko duen arduraren barnean amatasun denboraldiari eskaintzen baitio bere lana. Ana Casasen lanak, indibidua, identitate berria eta semeekiko harremanak azalerratu dizkigu eta *Offmothers* taldeak elkar lanaren garrantzia erakutsiko digu, gizartean aldaketak lortzeko ezinbestekoa baita aldarrikapenak aho batez egitea. Azkenik, ikusitako guztiaren gogoeta bat egingo dugu ondorioak atera ahal izateko.

Burujabetza, aniztasuna eta errespetua, gure gizartean erein beharraz dihardu lan honek. Emakumeok etorkizuneko gizakiak ernaltzearen ahalmena izan arren ez baikara gure gizatasunaren botereaz ohartzen. Berdintasuna akordio eta zeharkakotasunaren bitartez lor daitekeela sinesten dugu, patriarkatua idulkitik jaitsi eta aro berri bat idazten hazi baikara.

## 1- EMAKUMEAK ARTE GARAIKIDEAN

Atal honetan, XX. eta XXI. mendeetan emakumeen egoerak eta hauen aldarrikapenen nondik norakoaz arituko gara, egun ditugun artelan-artisten amatasunen esanahiak eta zergatiak hobeto ulertzeko. Horrela ondorengo atalean, aukeratu ditugun hainbat artista desberdinen lanak aztertzean oinarri bat izan eta panorama artistikoak amatasunari egun eskaintzen dizkion baliabide eta erantzunak ezagutu ahal izango ditugu.

Pausu hau emateko, funtsezkoak izan ziren feminismoaren ekarpenak. Griselda Pollock, Rozsika Parker, Lucy Lippard, Carol Duncan edo Teresa De Lauretis bezalako historialari eta ikertzaileen lanek, artea ulertu eta ikertzeko bide berriak ireki zituzten. Artelanak, noiz, zergatik, zertarako eta norentzat sortuak izan ziren galderari erantzunak bilatzen saiatu ziren artearen eta historiaren berrirakurketa baten beharra azaleratuz<sup>1</sup>.

Generoa gizartearen eraketa bat kontsideratzen den momentutik eta ez sexu biologikoak bideratua, emakumeoi borroka bide bat zabaltzen zaigu gizarte patriarkalak eraikitako feminitate arautuari aurre egin eta modelo berriak sortzeko. Honek arte kritikan ere eragina izango du, sexualitate subjektiboaren ekoizpena agerian utziko baitu irudigintzan. Griselda Pollock-en hitzetan:

(...) nos constituimos como sujetos, sujetos marcados por condicionantes de género y de clase, a través de ciertos procesos sociales. Nos vemos impedidos a reconocernos en las identidades e imágenes que nos transmiten determinadas prácticas e instituciones sociales y que constituyen lo que creemos que somos: la familia, el colegio, la iglesia, la publicidad, el cine el arte, etc.<sup>2</sup>

Artistek, ondo ulertuko dute garenaren eraketak hein batean norbanakoaz kanpo jasotzen dugun informazioaren bitartez eratua dagoela, inposatua eta berezkotasun bezala arautua<sup>3</sup>. “Pertsonala dena, politikoa da” leloak indarra hartuko du. Desioak azaleratu ezkerro gizartea aldatzeko aukera bat eman daitekeela ulertuko dute emakumeek eta ideia hau gorputzaren eta sexualitatearen irudikapenaren bitartez azaleratuko dute artean, amatasunari ikusgarritasuna emanaz, gizartea prozesuaren parte eginez eta etorkizuneko gizakien ardura partekatuz<sup>4</sup>.

---

<sup>1</sup> POLLOCK, G.: *Visión y diferencia: Feminismo, feminidad e historia del arte*. Buenos Aires, Fiordo, 2013.

<sup>2</sup> POLLOCK, G.: “Feminism and modernism” in PARKER, R. eta POLLOCK, G.: *Framing feminism*. London, N.Y, Pandora, 1987, 89. orr. Ondorengo liburutik eskuratua: MAYAYO, P.: *Historias de mujeres, historias del arte*. Madril, Cátedra, 2003, 110-111 orr.

<sup>3</sup> MAYAYO, P.: *Historias de mujeres, historias del arte*. Op. Cit. 110. orr.

<sup>4</sup> PADRON, E.: “Lo personal es político”, *Trama y fondo: Revista de cultura*, 27. zbk., 2009, 105-110 orr. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3324087> (2018-05-12an kontsultatua).

XX. mendearen 60. hamarkadaraino jo behar dugu feminismo berria bezala izendatua izan zena topatzeko. Aurreko mendeetan berdintasuna eta langileriaren duintasunagatik borrokatu bazuten emakumeek, oraingoan, aldarrikapen nahia haratago doa. Emakumeen zapalketaren jatorria aztertzea, familien rola, lanen banaketa sexuala, etxe-barneko lana, sexualitatea eta esparru publiko-pribatuen arteko problematikak helduko dituzte.

Idea sozialistak, familia zapalketaren oinarri bezala ulertzea edo langileriaren berdintasun ideiak ez ziren nahikoak izan emakumeen egoera aldatzeko. Aleksandra Kolontái bezalako kideak izan arren, sozialismoak ideologia patriarkalak zituen bere erroetan. Feminismo garaikidearen ustez, zuzenbide zein politikan berdintasuna lortzea ez zen nahikoa izan emakumeen rola aldatu eta genero ikuspegi berri bat sortzeko<sup>5</sup>.

Feminismo berriaren erronka gizakiaren izana honen naturari lotua ez dagoela aldarrikatzea izan zen. Ulergarriagoa izateko Simone de Beauvoir-en esaldi bat erabiliko dugu: “Ez gara emakume jaiotzen, emakume egiten gara”.

Aipatzen ari garen 60. hamarkada honetan, beraz, emakumeen askatasunaren beste alor batzuekin batera sexualitate feminista aldarrikatuko da: emakumearen sexu-gozamenerako eskubidea, sexu-askatasuna eta aukera sexual libre. Lehen aldiz zalantzan jarriko da emakumearen heziketa eta zaintza papera betebeharrak biologiko gisa. Etxeko betebeharrak aztergai izango dira; jaiotzaz eta bizitza osorako emakumeei leporatzen zaien funtzio sozial eta ordaindu gabea baita. Gizonezkoen hegemoniari amaiera eman nahiko zaio: “Ya no se acepta al hombre como prototipo del ser humano, como universal. Luchamos, sí, porque no se nos niegue ningún derecho, pero luchamos, sobre todo, para acabar con la división de papeles en función del sexo”<sup>6</sup>.

Aldarrikapen berri eta ugariak oinarritzeko borroka bide desberdinak ireki ziren. 60. hamarkadan eman zen feminismo berri hura lehen olatua kontsideratzen da egun. Bigarren olatua 80. hamarkadaren hasieran kokatzen dute eta egun bizi duguna garaikidea edo hirugarren olatua litzateke.

Izendapenak alde batera utzirik, egia da feminismoa ulertu, bizi eta borrokatzeko modu anitzak sortu zirela. Ez gara ur handitan sartuko, baina zergatiak ulertzeko azaleko irakurketa bat beharrezkoa iruditzen zaigu momentu honetan. Gure asmoa ez da

---

<sup>5</sup> DE MIGUEL, A.: “La articulación clásica del feminismo y el socialismo: el conflicto clase-género”, in DE MIGUEL, A. eta AMORÓS, C.: *Teoría feminista: de la ilustración a la globalización*, 1. liburukia. Madril, Minerva, 2005. 295-332 orr. Liburu honek Aleksandra Kolontái-ren inguruan informazio oso interesgarria jasotzen du.

<sup>6</sup> URÍA, P.; PINEDA, E.; OLIVÁN, M.: *Polémicas feministas*. Madril, Revolución, 1985, 102. orr.



epaiketarik egitea eta jarraian aurkeztuko duguna sinplifikazio bat denez, ñabardura asko izan ditzakeenaren jakinaren gainean gaude.

Desberdintasunaren feminismoak gizon eta emakumeen ezberdintasuna du abiapuntu. 60. hamarkadan AEB eta Frantzia izan zuen sorrera. “Emakume izatea ederra da” lelopean, kultura patriarkalari eta botereei aurre egitean zatzan. Gizontasuna eta maskulinitatea goraiatzaren zuten guztia ukatzen zuten, irrazionaltasuna eta sentsibilitatea laudatuz emakumeen ezaugarri bezala. Amatasuna, etxeko lanak, gorputzaren lengoaiaren bitartez kreatibitatea, esku lanak edo plazerra lortzeko ahalmena aldarrikatzen zuten, gizonezko eta emakumezkoentzat espazio desberdinen beharra ulertuz<sup>7</sup>.

Berdintasunaren aldekoak, ilustrazioaren eta sufragisten ondorengo bezala identifikatuko dira. Berdintasunean sakontzeko beharra ikusiko dute, sexu bereizketa desagertzeraino. Ez dute bereizketan sinetsiko, honen jatorri bakarra zapalketan ikusiko dute. Christine Delphy-ren hitzetan: “Lo que se encuentra en la sociedad jerárquica actual no son machos o hembras, sino construcciones sociales que son los hombres y las mujeres”<sup>8</sup>. Espainian Empar Pineda eta Celia Amorós-ek gaiaren inguruko eztabaida ireki zuten beraien ikerketa sakonen bitartez: “Las vindicaciones feministas de igualdad han ido históricamente unidas a las peticiones de autonomía por parte de las mujeres” bezalako ekarpenak eginez<sup>9</sup>.

Azkenik mugimendu sozialistarekin bat egingo duen feminismoa definituko dugu. Desberdintasunekoarekin antzekotasuna izan dezake, borroka sozialistaren barruan femeninoa bereizten duelako, baina sistema kapitalistari aurre egiteko elkartasunean sinesten du. Emakumeak sistemagatik esplotatuak eta patriarkatuagatik zapalduak daudela ulertzen dute. Beraz militantzia bikoitzaren aldekoak dira. Modelo honek Espainian nahiko indar izan zuen.

Egungo feminismoak noranzko eta korrante anitzak barne hartzen dituenez, zuzenagoa dagokio mugimendu feministez hitz egitea. 1980. hamarkadaren erdialdera aniztasunaren ondorioz eztabaida eta krisialdi momentu bat bizi izan zuten mugimenduek. Mende aldatetarekin birsortze bat gauzatuko da. Feminismoak leku

---

<sup>7</sup> GAMBA, S.: “Feminismo: Historias y corrientes” in GAMBA, S. (coord.): *Diccionario de estudios de género y feminismo*. Buenos Aires, Biblos, 2007. <http://www.mujaresenred.net/spip.php?article1397> (2018-03-21ean kontsultatua). Zenbatu gabeko dokumentu digitala.

<sup>8</sup> DELPHY, C.: “A Materialist Feminism is possible” in DELPHY, C eta LEONARD, D. *Feminist Review* 4. London, Palgrave Macmillan Journals, 1980, 79-105 orr. Gaztelaniako itzulpena ondorengo iturritik eskuratua: GAMBA, S.: “Feminismo: Historias y corrientes” in GAMBA, S. (coord.): *Diccionario de estudios de género y feminismo*. Op.Cit. Zenbatu gabeko dokumentu digitala.

<sup>9</sup> AMORÓS, C.: *Diez palabras clave sobre mujer*. Lizarra, Verbo Divino, 1995, 10. orr.

ofizialetan ikusgarritasuna lortu du eta estrategia honen bitartez gizartean eragina indartu du. Gobernuetan parte hartzean, erakunde berrien sorrerak bultzatzeko ahalmena izan dute, gobernu kanpoko erakundeen laguntza izateak eta nazioartean ikusgarritasunak indarra emango die mugimenduei. Hezkuntzari dagokionean, unibertsitatean ikerketa bide berriak ireki ziren, zorrotasun eta sakontasun akademikoaz tesi berriak eraikiz.

Mugimenduek eginda zuten bideari pentsamendu postmoderno eta postestrukturalisten eragina gehitu beharko genioke. Botereari dagokionean, maskulinitatearen eskumenak sorturiko ikuspegi bakarra gaitzetsiko dute. Genero arteko erlazioak eta emakumeen artean sortzen diren botere sareak aztertuko dituzte. Honen adibide izan daiteke gizarteak amengan sortzen duten manipulazio sentikorra, amek seme-alaben gain duten boterea edota emakumeak naturatiko izan beharko luken ardura<sup>10</sup>. Adibidez: Ekofeminismoak emakumeak ingurugiro eta ama-lurraren zaintzan ardura gehiago duela uste du, emakume-natura erlazioa oinarri harturik<sup>11</sup>.

Arteari dagokionean, Linda Nochlin arte historiagile amerikarrak eginiko galderari “zergatik ez dira emakume artista garrantzitsuak egon?” erantzun anitz eta arrazoiketa desberdinak eman zaizkio. Lehen begirada batean galderak emakumea gutxiesten duela iruditu arren, emakumeen egoeraren inguruan gogoeta egiten du. Berdintasunean oinarrituriko eraikuntza sozialaren beharraz hitz egiten du, hau baita emakumeek eginiko arteak eta amatasuna bezalako gaiek ikusgarritasuna lortzeko bidea<sup>12</sup>.

Pentsamendu eta ekintza sozial hauek artean eragina izan zuten. Emakumeek ohikotzat ez zituzten medioak garatzen hasi ziren, gorputzaren presentzia, gorputz-arte, esperimentatzen hasi ziren arrazoiaren bide soila jarraitu beharrean; horrekin batera, amatasunaren esperientzia subjektiboaz mintzatzeko beharra ere arte garaikidean argi agertu zen artista askoren lanetan.

Tradizionalki emakumezkoak ez direnez irudiaren sortzaileak izan, amatasunaren irudia gizonezkoen begiradak guztiz baldintzatu du; emakumeek artean

---

<sup>10</sup> GAMBA, S.: “Feminismo: Historias y corrientes” in GAMBA, S (coord.): *Diccionario de estudios de genero y feminismo*. Op. Cit. Zenbatu gabeko dokumentu digitala.

<sup>11</sup> MIES, M. eta SHIVA, V.: *Ecofeminismo*. Barcelona, Icaria, 2013.

<sup>12</sup> NOCHLIN, L.: “Por qué no ha habido grandes mujeres artistas” <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/87/78/48778.pdf> (2018-03-30an kontsultatua). Jatorrizko testuaren erreferentzia hauxe da: “Why Have There Been No Great Women Artists?”, in *Women, Art and Power and Other Essays*, Nueva York, Harper & Row Publishers, 1988 (1971), 145-178 orr.

subjektu eta egile izan arte, ez dugu amatasunaren ikuspegi anitz eta ez idealizatua bere konplexutasunean ikusi.

Azken bi mendeetan hasiko gara gizonezkoek sortutako iruditegitik aldentzen diren amatasunaren errepresentazioak ikusten, emakumeengandik zuzenean etorriko direnak. Asko izan dira artearen bitartez amatasunaren gaia landu duten edo lantzen ari diren emakume artista garaikideak. Gutxi batzuk aipatzearren: Marina Abramović, Tracey Emin, Barbara Hepworth, Louise Bourgeois, Mary Kelly, Diane Arbus, Margaret Harrison, Rineke Dijkstra, Susan Hiller, Annie Leibovitz, Maris Bustamante, Mónica Mayer, Sally Mann, Aleydis Rispa, Elinor Carucci, Ana Álvarez-Errecalde, Ana Casas, María Llopis, Ana Sabiá edo Bea Sánchez.

Modu labur batean estetika narratiboek jasan duten aldaketa azkarra ikusgarri jarri nahiko genuke. Amatasuna, gai tabu bat izatetik, sarean zabaltzen den ezagutza eta informazio iturri izatera iritsi baita.

Louise Bourgeois-en kasuan (1911-2010), abangoardiak bizi izan zituen emakume frantses honek bere biografia erakutsi zigun pintura, grabatu, eskultura eta instalazio bitartez. Sexua eta genero gaiak ibilbide guztian zehar landu bazituen ere, azkeneko urteetan garrantzia handiagoa hartu zuen amatasunak bere obran. Ama, aita eta seme-alabekin izan zituen harremanak hiru erpinetako erreferentzia suposatu zion<sup>13</sup>.




1- LOUISE BOURGEOIS. *The Birth (Jaiotza)*, 2007.

Mary Kelly (1941- ) artista estatubatuarra, 1973. urtean, *Antepartum* eta *Post-Partum document* obrak landu zituen. Lehenengoan, sabelean jaiotzearen semearen mugimenduak aurkezten zituen. Bigarrenak 6 urtetako lana biltzen zuen. Arte lan kontzeptual modura aurkeztu zuen. Ama-seme erlazioa dokumentatu zuen, semearekin elkarriketak eta artistak bere baitan sentitzen zituen kontraesanak azalerratz; kontraesanak, ama eta artista izanaren artean edo sortzaile eta hezitzaile paperaren

---

<sup>13</sup> BENEDITO, C.: “Feminismo, género y labores reproductivas”, *AusArt*, 5, 1, 2017, 103-115 orr. [www.ehu.es/ojs/index.php/ausart/article/view/17782](http://www.ehu.es/ojs/index.php/ausart/article/view/17782) (2018-03-31ean kontsultatua).

artekoak izanik. Obra modu askotako objektuez osatzen zen: esku izkribuak, semearen arropak, pixoihalak edo semearen zirriborroak<sup>14</sup>.



2- MARY KELLY. *Post-Partum Document: Documentation III*  
(Erditze ondorengo dokumentua : III. Agiria), 1975.

Marina Abramovic (1946- ), bere burua performance-aren amonatzat duenak, hiru abortu izanaz eta familia izateari uko egiteaz hitz egin du zabalki hainbat elkarrizketetan. Lanak, arteak, berebiziko energia osoa eskatzen diola dio, seme-alabak arte sormenerako oztopo bat direla; bizi energia, ama lanetan eta arte lanetan banatu beharko balu, hau eragozpentzat du. Indarrak banatzean artistak energia galtzen duela dio eta arrazoi honi leporatzen dio emakume artista bikain gutxi egotea<sup>15</sup>.



3- MARIA ABRAMOVIC. *Rhythm 0 (0 erritmoa)*. Performancea, 1974.

Tracey Emin-entzat (1963- ) artea bere traumak purifikatzeko modua izan zen. Bi haur-galtze izan zituen. 90. hamarkadan eta 2000.goan, sexua, amatasuna (kasu honetan ezina) eta abortuak bere lanaren ardatz nagusiak izan ziren. Esanguratsuak dira hainbat lanen izenburuak: *Abortion: How it feels. bleeding from the ovaries*; *Abortion: How it feels. Violated*; *Abortion: How it feels. Saying goodbye to mom*.

Galeraren ondoren *Exorcism of the last painting I ever made* izeneko performancea egin zuen. Bertan, ikuslearen aurrean biluzik eta margotzen azaltzen da.

<sup>14</sup> Ibid.

<sup>15</sup> ALONSO, M.: "Arte, feminismo y maternidad", *M- arte y cultura*. 2015-03-19.

[www.m-arteyculturavisual.com/2015/03/19/arte-feminismo-y-maternidad/](http://www.m-arteyculturavisual.com/2015/03/19/arte-feminismo-y-maternidad/) (2018-03-31ean kontsultatua).

Artista honek, aurrekoak bezala, ez du posible ikusten amatasuna eta artea partekatzea. Bere burua ama txartzat jotzen du eta egozentrikoa dela onartzen du<sup>16</sup>.



4- TRACEY EMIN. *Exorcism of the last painting I ever made* (Egin nuen azken margoaren exorzismoa). Performanzea, 1996.

Ana Álvarez-Errecalde-k (1973- ), artearen ahalmen katartikoa aurkitu duela dio. Argazki, bideo eta instalazio bitartez ikuslea bere bizitza pertsonala ardatz duen lanaren partaide bilakatzen du, egungo teknologia berriek eskaintzen dizkiguten plataformen bitartez. Ikuslearekin bere obra, iritziak, pentsamenduak eta gertakizunak partekatzen ditu, artea eta honen ezagutza behin-behinekotasunaren gizartera lotuz<sup>17</sup>.



5- [www.facebook.com/AnaAlvarezErrecaldeArt/](https://www.facebook.com/AnaAlvarezErrecaldeArt/) Perfilaren aurkezpena. (2018-04-28an kontsultatua).

<sup>16</sup> Ibid.

<sup>17</sup> BENEDITO, C.: "Feminismo, género y labores reproductivas". Op.Cit. 103-115 orr.

## 2- EGUNGO AMATASUNAK ARTEAREN BITARTEZ

Jarraian, aukeratutako artista garaikideen lana aztertuko dugu. Honela, modu sakonago batean, amatasuna abiapuntua izanik noranzko desberdinak hartzen dituzten bide narratibo ezberdinetan murgildu ahal izango gara.

### 2.1- GIZONEZKOEN BEGIRADA BERRIA

Emetasuna amatasunaren inguruan eraiki den bezala, artasuna aitatasunetik aldendua osatu da. Hori dela eta, umeen haztearen erantzukizuna emakumeen gaineko lana izan da luzaroan. Azken urteotan hainbat gizonek halako lanak euren gain hartu dituzten arren, oso kopuru txikia izaten jarraitzen du. Zenbakien arabera estatu mailan 2016. urtean, seme-alaben zaintzagaratik eszedentzian zeudenetariko % 92a emakumeak izan ziren. Euskal autonomia erkidegoan 4.036 ama eta 342 aita izan ziren egoera honetan ikusi zirenak<sup>18</sup>. Umeen haztea eta mantentzearen ardura bi sexuen artean banatzen ez den bitartean, oreka lortzea zaila izango da. Arteak, ordea, badu gizonezkoek halako rolak hartzearen normalizazioan zer eskaini, adibidez, Juan Vicente Aliaga-k maskulinitate berrien eta amatasun ideien inguruan idazten du *Madre hay más de una* artikuluan<sup>19</sup>.

Amatasunak, heziketa, zaintza eta espazio pribatuaren ezagutza eta gobernua biltzen ditu bere baitan besteak beste. Eta hauxe da Pello Ulaziaren *Isilean* obrak jasotzen duena.

Oraindik ez da ohikoa gizon batek etxeko ardura nagusiak hartzea, eta orain guri tokatzen zaigu ardura hori hartzea, baina isil-isilik. Jarrera hartze aktiboa proposatzen dut, aldarrikapenaz haratago, praxiaren konpromisotik orden estetiko-politiko berriak ezartzeko asmoz<sup>20</sup>.

<sup>18</sup> “Excedencias, permisos y reducciones de jornada” *Instituto de la mujer y para la igualdad de oportunidades*. <http://www.inmujer.gob.es/MujerCifras/Conciliacion/ExcedPermisos.htm>. (2018-05-09an kontsultatua).

<sup>19</sup> ALIAGA, J.V.: “Madre hay más de una: unas notas sobre la maternidad, la historia y el arte”, *Metode*, 62. zbk., 2010, 122-129 orr.

<sup>20</sup> “Entrevista: Pello Ulazia Ibarzabal” *Emakunde* <http://www.emakunde.euskadi.eus/informacion/entrevista-pello-ulazia-ibarzabal/u72-cogizon/es/> (2018-03-31an kontsultatua). Zenbatu gabeko dokumentu digitala. Bestalde, zuzeneko elkarrizketak eta *Berria* egunkariko hainbat artikulua izan ditut iturri Pello Ulaziaren lana burutzeko. Bideo iturrien artean hauxe da garrantzitsua: “Pello Ulazia, isilean, etxeko espazioaz eta bertako jardueraz” *Euskadi Irratia* <http://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/arratsean/audioak/osoak/3916824/pello-ulazia-isilean-etxeko-espazioaz-eta-jardueraz-----/> (2018-04-03an kontsultatua). Kontsultatutako prentsa artikulua hauek dira: BARCENILLA, H.: “Gizonen kontuak”, *Berria*, 2016-03-08. [https://www.berria.eus/paperekoa/1842/041/001/2016-03-08/gizonen\\_kontuak.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1842/041/001/2016-03-08/gizonen_kontuak.htm); ELUSTONDO, I.: “Zenbat lan egiten den isilean”, *Berria*, 2016-03-15. [https://www.berria.eus/paperekoa/1753/030/001/2016-03-15/zenbat\\_lan\\_egiten\\_den\\_isilean.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1753/030/001/2016-03-15/zenbat_lan_egiten_den_isilean.htm) eta SARASOLA, A.: “Ikusten ez direnak”, *Berria*, 2016-03-20

Pello Ulazia, 1966an jaio zen Mutrikun. Arte Ederretan lizentziaduna eta doktorea da Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun irakasle doktore laguntzailea da Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan eta Haur eta Lehen Hezkuntzako graduetan irakasle moduan dihardu. Hiru seme alaben aita da eta arte jardueratan ibiltzen da.

2016an, ordura arteko lanarekin alderatuta berria zuen proiektu bat aurkeztu zuen, bere bizi-esperientziak eraginda ekin ziona, aztergai duguna hain zuzen ere: *Isilean: aitatasuna, maskulinitatea eta etxeko espazioaren dimentsio politikoa*.

Erakusketak egungo gizartean nagusi izan diren ohitura eta ezarritako ereduengatik inguruko hausnarketa proposatzea du helburu. Horrez gain, etxeko zein gizarteko praktiketan egiteke dagoen lanaren aurrean jarduteko modu bat ere islatzen du. Ekintza, elementu eta gertakariak jasotzen ditu, eskulturetan, argazkietan eta ikus-entzunezkoetan. Pello Ulaziak berak erakusketa ondorengo mahai inguruan esan zuen bezala: “Ikuspegi objektibotik, ohiko zein ‘naturalizat’ jotzen dugun baina ‘sozialki ikusten ez diren’ alderdiak ikusgai uzten ditu erakusketak”<sup>21</sup>.

Lan honetan artistak etxeko jardueren esentzia estetikoa kaleratu nahi izan du artearen bitartez. Lan autobiografiko bat dela esan dezakegu; artistak bere bizitzako hamabi urtez etxeko jardueren ardura izatearen erabakia adostu baitzuen bikotekidearekin batera. Lanaren helburua etxe barruko jardueri duintasuna ematea da. Gizonezkoak hezitu eta aberasten dituen jardueratan parte aktiboagoa izatera gonbidatzen ditu.

Adibidez, urteetan zehar, arropak jaso, tolestu eta pilatzearen lan mekanikoari funtzio artistikoa topatu dio artistak. Arropak doblatzea inoiz bukatzen ez den lanak, Brâncuși-ren *Amaierarik gabeko zutabea*-k inspiratua, lan errepikakor eta nekezarekin antzekotasunak ikusirik arropa zutabeak sortzera bultzatu du.



6- PELLO ULAZIA. *Isilean*, 2016.

---

[https://www.berria.eus/paperekoa/1973/041/001/2016-03-20/ikusten\\_ez\\_direnak.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1973/041/001/2016-03-20/ikusten_ez_direnak.htm) (2018-04-03an kontsultatuak).

<sup>21</sup> “Entrevista: Pello Ulazia Ibarzabal” *Emakunde*. Op. Cit. Zenbatu gabeko dokumentu digitala.

Emakumeen etxe barruko lanari, ezkutuan eginari, kategoriarik gabeari, omenaldia egin nahi izan dio Ulaziak. Ez zion gizonezkoak etxean sartu ondoren edo sartu beharrari aipamena egin nahi duintasuna goraiatzeko; hortik, *Isilean* izena, duintasun hori omendu nahi izan baitu, baina etxe barrutik, isilean.

Beste piezatak batean, lan artistikoaren formula etxeko jardunetakoarekin parekatzen du. Prozesuaren azken emaitza bi kasuetan aurkezpen txukuna lortzea baita. Zapatak, binakatu, garbitu, distira atera eta txukun pilatzen ditu erakusketan etxean bezala.



7- PELLO ULAZIA. *Isilean*, 2016.

Artistaren nahia ez da artea arteagatik egitea bakarrik. Arteak zer esan ugari du, interes soziala, kritika, gizartearen dinamikak aldatzeko aukera eta kasu honetan, gizonek jarduera hauen ardura kontutan hartzea egiteke duten zeregina dela azaleratzea.




8- PELLO ULAZIA. *Isilean*, 2016.

Argazki bitartez, esku trapu, xaboi, edalontzi, plater, izara eta koltzak aurkezten ditu. Gauza arruntek duten edertasuna harrapatu nahi izan du: egunerokotasuneko txukuntasuna, ohea egitean koltxako izurrak zein txukun geratzen diren, erabileraren poderioz platerak nola kaskatzen diren, xaboiaren desegitea, edalontzi apurtuak, izaren zimurdurak garbigailutik ateratzean, beste garaietako muki zapiaren estetikak dakarzkigun oroitzapenak, garbi usainak... Esperientzien edertasunei momentu egokia bilatzen die, argi naturalaren laguntzaz argazkia ateratzeko.



Etxeko objektuetan inspirazioa topatzen zuen eta hautsa kentzeko trapua adibide gisa jartzen du; artistak objektuarekiko erlazio ezberdinak desberdintzen ditu: beste artista baten kasuan hauts trapua eserleku baten eraketarako materiala edo tresneriaren parte izan daitekeen bitartean, berak trapuaren berezko esentzia atera nahi izan dio, objektu beraren bi bizitza posibleen noranzkoaren alde artistikoa zilegituz.

66 argazki aurkezten ditu erakusketan. Haietako batean gizonezko bat biberioia galtzontziloetan sartuta duela ikusten da. Artistak aitatasunaren inguruan hitz egiten digu oraingoan. Aitatasunaren ardura, ardurarik handiena dela dio. Elikaduraren ardura aitarena ere badela, honen parte hartzea txikia izan arren. Autorretratua egin nahi izan du errepresentazio honen bitartez eta aita bezala honek duen konplexutasunetik. Aitatasuna amarekin konparatu gabe, sexualitatearen aldetik ere aita eta ama bereiziz. Biberioiaren posibilitatea azaleratzen du aldarrikapenik egin gabe. Biberioia kokatzeko moduan badirudi bere zakila izan zitekeela, hori delarik gizontasunaren sinboloa; baina kasu honetan, argi dago ez dela hori. Horrekin erakutsi nahi du, azken finean, maskulinitatea eraikitzeko beste parametro batzuk ere egon daitezkeela.



9- PELLO ULAZIA. *Isilean*, 2016.

Hiru elementutako instalazio baten parte da autorretratua, beste elementu bat tetina bat da eta honek ondoan eskuz idatzita Xabier Lete-ren olerki bat du: “amaren bularra haurraren janari, haurraren negarra beti hunkigarri” jartzen duena. Amaren bularra beti amarena dela dio, eta biberioia biberioi, baina aita izan arren ez duela zertan berdindu behar emakumearekin, aita izaten jarraitzen duela dagozkion ardurekin.

Eguneroko janariak prestatzearen zailtasuna, hormigoia bitartez lortzen duen masa konpaktu eta indartsuarekin gorpuzten du. Lapiko, zartagin, kazuela, ontzi eta platerak material honez betetzen ditu.

Seme-alabetako bi futbolean aritzen direla kontatzen du eta beste etxe askotan gertatzen den modura, etxea baloiz betea dutela. Baloi hauek ere hormigoiz beteak

daude, 8 kiloko pisua dute, kolore arrosa eta distiratsua eman die ohiz kanpoko tratamendu formalaren bitartez arte munduko aldentze edo ez ohizkoaren bila.



10- PELLO ULAZIA. *Isilean*, 2016.

Ikusentzuneke piezei dagokionean, hauetako batean, aitaren eta seme-alaben harreman afektiboaz dihardu. Txiri-buelta, bizitzaren metafora bezala aurkezten du. Gurasoek sostengua eskaintzen baitute baina txiri-buelta seme-alabek beraiek eman behar baitute. Kasu honetan musika Javier Muguruza-ren *Aitarekin bidaian* pieza dela aipatzen du<sup>22</sup>.

Beste obretako batean, koloreko arropa kromatismo puntua ematearren, bueltaka dabil martxa emanda duen garbigailu batean. Etxe barruko denbora islatu nahi izan du lan honek: denbora geldoa, lasaiagoa. Etxeko erritmoak, ederrak, kanpoan lan egiten dutenek beste erritmo bat daramate. Bere lanarekin gozatu du bai, baina baita, sufritu ere. Ulaziak agerian uzten duen bezala, Xabier Letek esana: “poesia lortzeko sufrimendu bat egon behar da atzean”. Jarduera honen atzean lan errepikakor, nekeza, emaitzarik gabea eta saritu gabea dago, baina hortik ere poesia ateratzen du. Hori izan da ikuslearengana gerturatu nahi izan duen mezua.

Etxe barruko bizimoduaren ispilu, baina *Isilean* dena ez da etxe barruko kontua: maskulinitateak, rol berriak, aitatasuna eta etxe barruko dimentsio politikoen inguruan aritu bai da Pello Ulazia bere erakusketan<sup>23</sup>.

---

<sup>22</sup> ANDONEGI, E.: *Isilean* <https://vimeo.com/112256380> (2018-04-05ean kontsultatua).

<sup>23</sup> Posta elektronikoz partekatzen dugun erlazio informalean, Pello Ulaziak, egun, gai beraren harira datorren proiektuan diharduela ezagutarazi dit. Zaintzari loturiko erakusketa bat eta liburu baten argitalpena ditu bidean (2018-05-17an partekatua).

## 2.2- AMATASUN IRAULTZAILEAK

Amatasunari 360 graduko bira emango diogu oraingoan. Gutxitan parekatu izan zaion gai batekin lotuko baitugu. Gai hori sexualitatea izango da. Jaiolekuz dagokigun mendebaldeko kultura honetan, kapitalismoak eta hezkuntza patriarkalak gidaturiko jarduera sexuala eta honen kontsumoa oso markatuak ditugu. Atal honetan amatasuna aitzaki, sexualitatea azaleratuko dugu. Gaiaren inguruan genituen jakin-minak ezjakintasunaren neurri berekoak zirenez testu-inguratze historiko bat egin behar izan dugu. Ikerkuntza lan honen gidari Maria Llopis artistaren *Maternidades subversivas*<sup>24</sup> liburua izan denez, honi omenaldia egin nahi izan diogu atalaren izenburuaren bitartez. Kasu honetan ez dugu artista bakarraren aipamena egingo, atal hau arte modu bati eskainiko diogu: Post-pornoa.

Esan bezala Llopis izango dugu erreferentzia Espainia mailako mugimendu honetan, nahiz eta ez izan bera bakarra. Hasteko, mugimenduaren sorrera eta norakoaren zertzelada batzuen bitartez oinarri bat ezarriko dugu. Ondoren, egun mugimendu honen parte diren hainbat artisten produkzioa ikusiko dugu arte mota honen ideia gorpuztu bat izateko.

Gure asmoa ez da sexualitate eta gozamenari buruz hitz egitea amatasunerako beharrezko osagai delako, baizik eta Maria Llopisek post-pornotik amatasunera ematen duen pausoa aztertu nahi dugu zehazki eta ez post-pornoa orokorrean. Post-pornoa azaldu ostean, amatasunari loturik eginiko lanak azaleratu nahi ditugu, Llopisen ikerketa erabiliz.

Llopis aktibista erradikala kontsideratzen da, emakumeek burujabetza osoa lortzeagatik borrokatu behar dutenaren ideia aldarrikatzen du eta espresuki arlo sexualera bideratzen du bere lana. Plazer eta gozamen sexuala denon eskubidea delako pertsona ororen ikusgarritasuna aldarrikatzen du. Noiz, nola eta norekin disfrutatu behar dugun inposatu zaigu orain arte, kateak apurtu eta norbanakoak bere neurrira eginiko sexualitatea errebindikatzen du<sup>25</sup>.

Amatasunean emakumeek plazer sexualaren puntu gorena bizitzen dugu ikuspegi zientifikotik, oxitozina hormona jarioa ugaritzen baitzaigu eta hau bera da orgasmoa izatean izurtzen duguna. Erditze unean iristen gara oxitozina kopuru gorenera, beraz erditzea eta plazerra bat datoz amatasunean. Zientziarekin bat etorriaz,

---

<sup>24</sup> LLOPIS, M.: *Maternidades subversivas*. Tafalla, Txalaparta, 2015.

<sup>25</sup> LLOPIS, M.: *El postporno era eso*. Bartzelona, Melusina, 2010.

Llopisek amatasunaz gozatzeko eskubidea aldarrikatzen du. Berak bizitu duen esperientzia eta beste hainbat pertsonenak (emakume, gizon, trans, queer...) jasotzen ditu bere liburuan, arau eta usadioekin apurtu eta sexualitateaz gozatzera gonbidatzen gaitu amatasun propio, aberasgarri eta bete baten aukerak bideratuz<sup>26</sup>.

Post-porno terminoa 80. hamarkadan asmatu zen. Wink Van Kempe artista holandarrak, sexu organoak lehen planoan aurkezten zituen argazki bilduma bati eman zion izena izan zen. Lan honen nahia ez zen masturbatiboa, parodia eta kritika bilatzen baitzuen. Baina Annie Sprinkle artista eta aktorea pornoa izan zen terminoari dimentsio kultural eta politikoa eman ziona. *Umetoki lepoaren aurkezpen publikoa* izeneko ikuskizunarekin ohizko medikuntza eta pornografiak dituen ikus kodeak irrijarri jarri nahi izan baitzituen, emakumearen sexua gertutik ikusi nahiaren ikusmin pornografiko tradizionala zentzugabekeria batean bihurtuz. Pornografia zinemagintzaren barruan fikziozko genero bat da, konbentzio, kode eta arau jakin batzuk jarraitzen ditu. Sortzen duen narratiba kontsumitzaile maskulino eta heterosexua bati bakarrik zuzendua dago. Sprinkle-k hainbat galdera luzatzen dizkigu: zein da pornografiak irudikatzen digun gorputza? Zergatik eta norentzat da ernagarria? Non ditu mugak? Irudikatzen duena ez bada kitzikagarria, zer da?<sup>27</sup>.

Paul B. Preciado-rentzat, Sprinkleren lanak pornografia gainartzaile bati aurre egiteko ideien hastapenak ezarri zituen. Izan ere, Sprinklerrek benetako sexualitatea irudikatzenetik urrun, errepresentazio ekoizpenak sortzearen apustua egiten baitu. Preciadoren hitzetan:

(...) la pornografía dominante es a la heterosexualidad lo que la publicidad a la cultura del consumo de masas: un lenguaje que crea y normaliza modelos de masculinidad y feminidad, generando escenarios utópicos escritos para satisfacer al ojo masculino heterosexual. Ese es en definitiva la tarea de la pornografía dominante: fabricar sujetos sexuales dóciles... hacernos creer que el placer sexual "es eso"<sup>28</sup>.

Urteak aurrera joan ahala, artista eta akademikoak ideia hura garatzen joan dira eta 2003. urtean ondorengo definizioa eman zitzaien post-pornografiari:

---

<sup>26</sup> SANCHO, M.: "Maternidades subversivas", *Asparkia: investigación feminista*, 29, 2016, 196-199 orr. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5801892> (2018-05-11ean kontsultatua) eta PALOMO, A.: "¿Es ahora el feminismo más sexual que nunca?", *El País*, 2016-11-21.

[https://elpais.com/elpais/2016/10/19/tentaciones/1476890584\\_748104.html](https://elpais.com/elpais/2016/10/19/tentaciones/1476890584_748104.html) (2018-05-10ean kontsultatua).

<sup>27</sup> PRECIADO, B.: "Entrevista con Beatriz Preciado", *Parole de queer*, 4, 2009-2010, 13-19 orr. [https://www.scribd.com/fullscreen/80232942?access\\_key=key-316k81whbmxollpnsyk](https://www.scribd.com/fullscreen/80232942?access_key=key-316k81whbmxollpnsyk) (2018-05-11ean kontsultatua).

<sup>28</sup> Ibid, 14. orr.

Una serie de performances, representaciones y prácticas audiovisuales, intervenciones y textos activistas que, inspirados en la obra de Annie Sprinkle, descentra la mirada pornográfica dominante, cuestiona los códigos de representación normativos de pornografía y crea nuevos espacios para la producción de cuerpos y placeres feministas y queer<sup>29</sup>.

Llopisek zita honetan “queer” hitza erabiltzean mugimendu post-identitarioan sorturiko terminoaz ari da.

Post-porno bezala deskriba daitezke ondorengo artista, talde performatibo eta pornografoek garatutako lanak: Charles Gatewood, Post Op, Dr. Carol Queen, O.R.G.I.A, Girls Who Like Porno, Tina Butcher (Madison Young), Tristan Taormino, Sadie Lune, María Llopis, Diana Pornoterrorista eta Del LaGrace Volcano.



11- CHARLES GATEWOOD. *Izenburu gabea*, 1966.

Laburbilduz, post-pornoan lan egiten duten artistek edo bertara gerturaten direla aditzera ematen dutenean adituek, ezaugarri jakin batzuk jarraitzen dituztelako da. Industria pornografikoak normala bezala saltzen duten materiala mespretxatzen dute, gizarteari benetako sexutzat saltzen dietena aurrefabrikatua dagoela salatuz. Produktu oso findua baita eskaintzen dutena. Findua esatean, estetika eta gustu jakin batzuei erantzuna ematen diona esan nahi dugu. Egungo gaztediaren hezkuntza sexuala pornografiaren kontsumotik dator, beraz, gai tabua izatea alde batera utzi eta normalizatu beharreko arazo bat da. Garrantzitsua zaigu arte munduan gai hau jorratzen dela ezagutzea. Mugimendu honek alderatuak geratzen diren giza gorputzei eta gorputz horietan bizi garen pertsonen sentimendu, bizipen eta sexu erlazioak gerturaten baitizkigu.

Edertasun estetiko eraikia baino haratago dagoena azalarazten da. Batetik emakumea kontsumo produktua izatetik, kontsumitzaile izatera igaroko da: benetan gogoko duen produktuen kontsumitzaile, eta ez berriro ere gizarteak gustuko izan behar duela inposatzen dionarena. Honetarako ezinbestekoa da produkzio lana emakumeen esku egotea. Hau Madison Young-en kasua da, pornografiaren munduan aktorea lanak

<sup>29</sup> LLOPIS, M.: *Maternidades subversivas*. Op. Cit. 300-301. orr.

egin ondoren kameraren beste aldean jartzea erabaki baitzuen. Llopis-en liburuan, elkarrizketa anitz jasotzen dituen obran, Madisonek amatasunaren inguruan hitz egiten du bere esperientziatik. Emakume haurdunen agerpena bere industrian anekdotikoa dela dio, fetitxea. Belladonna aktorea eta zuzendaria izan dela amatasuna pantaila aurrera arrakasta handiarekin gerturatzea lortu duen bakarra dio. Arrakastaren muina lan talde osoa emakumezkoen osatua dagoenaren susmoa agertzen du. Emakume bezala bizi izan dituen aldaketaz hitz egiten du eta eztabaida sortu zuen obra bat aipatzen du.

Quería personificar el estado transitorio del ser, el equilibrio de la identidad al conservar nuestra sexualidad propia y nuestra identidad sexual, a la vez que daba el pecho a mi criatura. Encarnamos todos los aspectos de una identidad múltiple: amor, sexo, crianza, cuidado maternal, escritora/artista, esposa/pareja, todo a la vez<sup>30</sup>.



11- MADISON YOUNG, Autorretratua. *MILFing Mariling*, 2011.

Tamalez, argazkia, ez zen berak azaldu bezala ulertu eta pederastia sustatzea leporatu zioten<sup>31</sup>.

Pelikula porno dokumental bat zuzendu zuen, *Pregnant with desire*. Hainbat lankide haurdun izan zituen momentuan bizipen haiek dokumentatu beharra zegoela pentsatu zuen. Emakume haiek sexuaren munduan ezagutza zutenez, aktorea pornoak zirelako, aberasgarria eta beharrezkoa zela pentsatu zuen bizipen une hura dokumentatzea. Haurdunaldia ohikoa ez den iturri baten bitartez eskaintzea lortu zuen, emakume haien gorputz, sexualitate eta desirak agindu heteronormatiboen eszenatik kanpo erakustean<sup>32</sup>.

Amaitzeko bi aipamen egin nahiko genituzke. Lehenengoa, Bruce Labruce idazle eta zinegilea. Bere pelikulen bitartez matxismoa arbuiatu nahi du.


---

<sup>30</sup> Ibid. 93. orr.

<sup>31</sup> FRAGUAS, A.: “Sobre actrices porno y salirse de la norma.” *El País*, 2011-12-08. <http://tentaciones.elpais.com/2011/12/sashaymadison.html> (2018-04-05ean kontsultatua) eta MURRAY, G.: “The Sweet Spot: Ex-Porn Star Sasha Grey reads to little kids—So What?”, *SFWeekly*, 2012-04-13. <https://archives.sfweekly.com/exhibitionist/2012/04/13/the-sweet-spot-ex-porn-star-sasha-grey-reads-to-little-kids-so-what> (2018-04-05ean kontsultatua).

<sup>32</sup> LLOPIS, M.: *Maternidades subversivas*. Op. Cit. 96. orr.

Sadomasokismo eszenak eta skin-head edo punkiak azaleratzen ditu bere lanetan. Artistaren bi argazki aukeratu ditugu aldizkako gorputzen edertasuna gureganatzeko.



12- Iturria: <http://brucelabruce.com/photographs/> (2018-04-06an kontsultatua).

Sexu esplizituko lanetan sartu gabe, gure gaitik aldenduko ginatekeelako, irudi hauek ongi biltzen dituzte post-pornoak aldarrikatzen dituen ideiak, karga sentsual eta sexualez beteriko gorputza aurkezten baitigu. Estereotipo eta botere erlijioso zein kulturaletatik urruntzen den emakume haurduna aurkezten digu, ausart, ikuslea begiratzen duena, duen boterearen jakitun, bere izanaz lotsatzen ez dena eta betiko egunerokotasunarekin jarraitzen duena. Pertsona arrunt bezala aurkezten da eta halaxe ikusi beharko genuke, egun luze eta nekez baten ondoren bainu erlaxagarri bat hartu eta lasai zigarro bat erretzen ari den pertsona bezala.

Azkenik, beste aipamen berezia egin nahi diogu Emilie Jovet artista frantsesari, aurtengo *Zinegoak* zinemaldian ohorezko saria jaso baitu. Gure lanaren harira datozkigun bi film aipatu behar ditugu: Lehenengoa *Aria* dokumentala litzateke (2017). Artista haurdunaren tripa aitzakia izanik, amatasuna, aitatasuna eta beste hainbat gogoeta biltzen ditu<sup>33</sup>. Bizitza berri baten etorreraren aurrean gizartean jasotzen diren gogoeta anitzak biltzen dira ez ohizko ikuspuntu batetatik begiratuta, kasu honetan artistaren tripa. Interresgarria da triparen presentzia hutsak sortarazten dituen beldurrak, kezkek, itxaropenak eta gogoetak orokorrean. Eta bestetik, urte berdineko *My body my rules* dokumentala. Gorputz aniztasuna lantzen du<sup>34</sup>. Gorputzen aniztasuna azalarazten du, adinak, osasunak edo ezintasunak ez baitio duintasuna kentzen gizabanakoari, ezta honen bizitzeko, maitatzeko eta mugitzeko desiorik ere.

<sup>33</sup> *Zinegoak, el Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas gaylesbotrans de Bilbao*. <http://www.institutfrancais.es/bilbao/eventos/zinegoak-2018-festival-de-cine-lgtbi-de-bilbao/> (2018-04-06an kontsultatua) eta JOUVET, E.: *Aria* <https://www.emiliejouvet.com/aria-le-film> (2018-04-06an kontsultatua).

<sup>34</sup> JOUVET, E.: *My body my rules* <https://www.emiliejouvet.com/my-body-my-rules> (2018-04-06an kontsultatua).

### 2.3- BENETAKO EMAKUME INPERFEKTUAK

Amatasunaren inguruko narratibekin jarraitzeko, begirada egiazale eta xumea gerturatu nahi izan dugu. Barneko bizi esperientzia pertsonalak merezi duten xamurtasuna eta duintasuna izan dugu helburu lan osoan zehar. Hau horrela izanik, etxeke ahulenak maitasunez eta errespetuz beraien bizitzan eta obren parte bilakatu dituzten artistetako baten obra aipatuko dugu, Ana Casas argazkilariaren *Kinderwunsch* lana hain zuzen ere.

Ana Casas Broda (1965- ) Granadan jaio zen baina Mexikora toki aldatu zen gaztetxoa zelarik. Bertan, pintura, historia eta argazkigintza ikasketak egin zituen, azken hau bere ogibide bilakatuz. Proiektu pertsonalen eraketak argazkigintzari loturiko ikasketak ematearekin tartekatzen ditu.

Bere lehen proiektu pertsonal garrantzitsuena *Álbum* izenekoak izan zen. Bertan hamalau urtez amonari eta amonarekin eginiko argazkiak biltzen ditu, baita bere ahaideen irudiak eta hainbat ikusentzunezko lan ere.

*Kinderwunsch* alemanetik harturiko terminoa da. Ume eta desio hitzak biltzen ditu eta seme-alabak izatearen nahia jasotzen du bere baitan. Casasek zazpi urtetan zehar familia eta memoriaren inguruan eginiko hausnarketan bildumari izendapen hau eman nahi izan zion bertan amatasunaren esperientzia azaltzen duelako.

Esta exposición es el resultado de un proceso de búsqueda de la identidad, del cuestionamiento de nociones como la infancia, el cuerpo, el desnudo, la sensualidad, la infertilidad, el afecto y el papel de la mujer en el intenso y determinante proceso de la maternidad. La muestra utiliza diferentes formatos, lenguajes y soportes para articular un discurso a la vez visual y literario<sup>35</sup>.

Lehenengo fotomuntaketa bezala argitaratua izan zen lana, ondoren erakusketa forma hartu zuen eta egun oraindik formatu honetan ikusgai da Hegoamerikan.

Proiektua 2006an hasi arren, bertan 2003tik gertatutako bizipenak jasotzen dira. Artistak amatasunaren bidaia lehen pertsonan kontatzen digu hamar urtetan zehar eginiko autorretratuen bitartez. Bertan bide geldo eta bihurria deskribatzen du baina baita atsegina ere. Lana zirrarez baina sentimentalismorik gabe aurkezten du, amatasunaren begirada ikuspegi fisikoan, gogo-aldartean, psikologikoan eta sentimenekoan ipiniaz.

---

<sup>35</sup> “Ana Casas Broda. Kinderwunsch” *Circulo de Bellas Artes de Madrid* <http://www.circulobellasartes.com/exposiciones/ana-casas-broda-kinderwunsch-phe15> (2018-04-18an kontsultatua). Zenbatu gabeko dokumentu digitala.



Lan hau ere ez zen eztabaidaz libratu eta hainbat argitaletzek bere argitalpena ukatu zioten artistari irudiak esplizituegiak zirelako, “errealegiak” aditzera eman zioten modura. Bertan ama semeekin jolasean biluzik agertzen delako, semeak amaren gorputza margotzen azaltzen direlako edo beste argazki batean semeek ama esne-gainez lohitzten dutelako<sup>36</sup>.



13



14



15

ANA CASAS. *Kinderwunsch*, 2013.

Irudiek salagarriak izatetik urrun ama batek semeekin duen harremana azaltzen digute, zaintza eta ardurak konplizitate jolas moduan agertuz. Edonor, guraso izan ala ez, identifikatua senti daiteke umeekin jolastean haurtzarora itzuli eta ahaztuak zituen oroimenak burura etortzen zaizkionean. Oroitzapenak bat-batean etortzen dira, txikitako jolasak, udako oporraldiak, aitona-amonen oroitzapenak edo anaiarekin haserrealdiak izan daitezke, momentu horietan ez gara gure buruaren jabe eta irudiak joan etorrian ibiltzen zaizkigu buruan. Espazioa, etxe barrua dela ate eta leihoek gogorarazten digute. Alfonbrak goxotasuna eta etxeko epeltasuna iradokitzen du, egun beroetan biluzik ibiltzera gonbidatzen gaituena. Etxea jostailuz betea izan arren beti da dibertigarria janariarekin jolastea, erabilpen jakina duten artikuluei bizitza berria ematea eta, nola ez, dena interesgarriagoa izaten da lagunartean egiten denean, zer esanik ez anaiak eta ama gaizkide badira.

Casasek amatasuna bere jatorrietatik azaltzen digu, ernaketatik, bere bi semeak izatearen esperientzia aurkezten baitigu. Bigarren semea 40 urteak gaindituak izan ondoren, ernalketa tratamendua nolakoa izan zen azaltzen du. Lehen semea, Martin,

<sup>36</sup>SALCEDO, I eta MARTÍNEZ, R.: “Kinderwunsch: buscando la identidad a través de la maternidad”, *Minerva: Revista de Circulo de Bellas Artes*, 25, 2015, 35-35 orr. <http://www.circulobellasartes.com/revistaminerva/articulo.php?id=656> (2018-05-10ean kontsultatua).

2003an jaio zen eta Lucio 2008an. Proiektua 2010ean amaitu zuen eta argazkiei momentuko bizipen testuak atxiki zizkion.

Amatasuna esperientzia onuragarria izan zela dio artistak baina konplexua eta zalantzaz betea:

El deseo de tener un hijo, un embarazo. Habitar un cuerpo ajeno, perfecto. Parir, los pechos llenos de leche, el delirio de los primeros meses. Un espacio atemporal, sin forma, día y noche se suceden sin divisiones. El placer de ese pequeño cuerpo pegado al mío, a mi pecho, amamantar cada tres horas, dormir, delirar, el agotamiento<sup>37</sup>.



16



17



18



19



20



21

ANA CASAS. *Kinderwunsch*, 2013.

Emozio kontrajarriz hitz egiten digu, bizipen handiak, harrigarriak baina bat-bateko eszena aldaketaz ere: mugimendu hautemanenez, lo ezinez eta pentsamendu zirkularrez. Ikara momentuak pasabide ilun eta luze bezala deskribatzen dizkigu artistak eta egoera hartatik ateratzeko ariketa modura argazkiak egiteari ekin ziola exorzismo modura.

Los juegos, el cariño, el contacto, las fotos me devuelven al presente por un rato. Sensaciones intensas, placenteras que lo dominan todo. Y a la vez, son mis niños los que me convocan a esa otra escena<sup>38</sup>.

Testuetan iragana orainarekin uztartzen du, bere gurasoen banaketa, amonaren gaixoaldi luzea eta ernalketa tratamenduko garaiak ekartzen ditu berera. Bizitza, buruhausgarri bat balitz, argazkien eta testuen bitartez bizipenen lotura bat egiten

<sup>37</sup> CASAS, A.: *Kinderwunsch*. Madril, La Fábrica, 2013.

<sup>38</sup> Ibid, zenbatu gabeko argazki liburua.

saiatzen da Casas. Oroitzapenen, bizipenen eta desioen adiskidetze bat lortu nahi duela dirudi. Susan Bright-ek liburuaren epilogoan ala dio: “solo puede existir en la unión de las palabras y las fotografías. Ambos lenguajes entretejen el pasado, el presente, los recuerdos, el deseo y el amor”<sup>39</sup>.

Casas-ek bere etxea gordeleku bilakatu du. Bertan, beretzat eta bereentzat babes atmosfera lortu duela atzematen da lanean. Etxea gordeleku bakarrik ez, lanerako laborategia ere badela esan dezakegu. Momentuak iraunarazteko laborategian: semeen zaintza, hauek nola hazten ari diren eta bere aldaketa fisikoa urteak pasa ahala, amatasunaren lehen urratsetako oroitzapenak eta falta direnen hutsunea etxeko bazterretan zein bere gorputzeko zimurretan gordetzeko gai da. Teleobjetoaren bitartez momentu, bizipen eta sentimenduak harrapatzeko gaitasuna du artista honek.

Bakarka eta intimitatean lan egiteko gaitasuna du Ana Casasek, etxeko lanak, semeen zaintza eta ogibidea uztartzea lortu dituela esan dezakegu. Baina hau ez da ohizko kasua tamalez. Agian horrexek egiten du bere lana interesgarria eta mirezgarria.

---

<sup>39</sup> Ibid.

## 2.4- TALDE-LANA

Gaiaren harira, emakumeak etxearekiko duen lotura esklaboari buelta eman nahi izan dion lan-talde baten aipamena egin nahiko genuke lana bukatu aurretik.

*Offmothers* emakume artistez osaturiko lan-talde bat da. Bere partaideak Susana Carro, Natalia Pastor, Elena de la Puente, Roxana Popelka, Eugenia Tejón, Gema Ramos eta Blanca Prendes dira. Taldea 2014. urtean osatu zen *ParaiSururalExtendido* lan espazioaren babesean Asturias-en. Taldearen eskarietako bat jardueren iraupenean seme-alaben zaintzarako arduraduna izatea izan zen. Eskakizuna behin beteta ikusirik, proiektu artistikoak eta amatasuna bateraezinak izatearen arazoa ez dela pertsonala politikoa baizik ondorioztatzen dute eta honi aurre egiteko talde-lana beharrezkoa ikusten dute<sup>40</sup>.

Taldearen lehen proiektua 2016. urtean aurkeztu zen *Pájaros en la cabeza* izenpean. Bertan lan prozeduraren ikerkuntza guztia ikusgai jarri zuten objektu, ikus-entzunezko pieza, performance, argazki zein poesien bitartez. Produkzioak lan indibiduala gainditu eta elkarlana, zeharkakotasuna eta harremanak jorratzea zuen helburu.

Urte honetantxe aurkeztu dute azken proiektua, *Casa tomada*. Bertan etxeak espazio fisiko bezala bere baitan gordetzen dituen sare kontzeptualen problematika aztertzen dute: umeen hezkuntza, familia eta genero arazoak estakuru egiten diren funtzio banaketaz. Ezin bestean, desberdintasun biologikoak aitzakia, etxeko esparruan haziko baitira emakumeonganako desberdintasun politikoak eta ama, emazte zein etxeko andre irudiaren ideiak definitzen.

¿Y qué sucedería si nuestro hogar dejara de ser cautiverio para convertirse en guarida? ¿Qué sucedería si los muros de nuestros espacios domésticos fueran permeables a nuestros proyectos personales? ¿Qué sucedería si el hogar fuera también nuestro taller, el espacio propio para nuestro tiempo y proyectos propios?<sup>41</sup>

Galdera horiei erantzuten saiatzen da *Offmothers* taldea *Casa tomada* proiektuan. Julio Cortazar-en izen bereko kontaketa bizilagunek etxetik alde egiten dute bizimodua distortsionatzen dieten indar baten aurrean. *Offmothers*en proiektuan,

---

<sup>40</sup> “Colectivo Offmothers” *Laboral centro de Arte y creación Industria*. <http://www.laboralcentrodearte.org/es/recursos/personas/colectivo-offmothers/view> (2018-04-20an kontsultatua).

<sup>41</sup> “Colectivo Offmothers: Casa tomada” *Laboral centro de Arte y creación Industria*. <http://www.laboralcentrodearte.org/es/exposiciones/casa-tomada> (2018-04-20an kontsultatua).

etxe barruko ordena eraldatzen dute eta definizio berri bat bilatzen dute bertan jarraitu ahal izateko.

*Animales domésticos*, proiektuaren lanetako bat, baliagarria da *Casa tomada* proiektuaren osotasuna ulertzeko. Bertan taldekide bakoitzeko etxetxo bat erakusten dute. Zazpi emakumeek, beraien artean desberdinak izan arren itxura bereko zazpi etxetxo zuri aurkezten dituzte. Etxetxo hauek ikuslea barruan dagoena begiratzera gonbidatzen dute leiho eta ateetan barrena. Barruan, etxe abereak ikus daitezke. Beraiek abere bezala definitzen dute bere burua, emakume eta amak kasu honetan, tradizioz eta genero eginkizunen banaketaren ondorioz inposatua izan zaigun paperean <sup>42</sup>. Erakusketan bertan, ondorengo definizio hau erabiltzen dute etxe abereak deskribatzeko:

Animales domésticos:

En el devenir de la casa como mero asentamiento a la casa como hogar, existe toda una construcción conceptual de la que la ilustración es responsable.

Siglos de perseverancia en esta tradición consolidan el hogar en cuanto ámbito desde el que se define a las mujeres como madres y cuidadoras.

El hogar domestica y conduce a la pérdida de individualidad: las mujeres serán reformuladas como la mujer y el hogar en el espacio donde su ser acontece <sup>43</sup>.



22- OFFMOTHERS. *Animales Domésticos*. 2017.

Zazpi etxeak osotasunean ulertu behar dira, ez banakako zazpi lan bezala. Taldearen lan funtzionamendua ideia amankomun bat lantzean oinarritzen da, nahiz eta artista bakoitzak bere espezialitatea izan, piezak elkarlanaren fruitu dira.

<sup>42</sup> CARRO, S. eta MARTÍNEZ, S.: “Animales domésticos. Colectivo Offmothers”, *La Escena*, 2017-09-15. Zenbatu gabeko dokumentu digitala. <http://www.laescena.es/animales-domesticos-colectivo-offmothers/> (2018-05-11 lean kontsultatua).

<sup>43</sup> LUEJE, J.: *Offmothers montaje 2* <https://vimeo.com/232802790> *Animales domésticos* lanaren inguruko ikusentzunekeo dokumentu digitala. (2018-04-20an kontsultatua).

Etxetxoetako batek denboraren metafora bat gordetzen du bere baitan. Egunkari zahar zimur eta origami teknikan eginiko paperezko iruditxoek bitartez denbora galduari eta erabiliari erreferentzia egiten diote, amatasunean murgiltzean etxeko beharrek momentu pertsonalak berreskuratzeko zailtasuna dakarkienaren isla.

Beste etxetxo batean, ama batek etxea lehertzen duela amesten du eta ez tandaren oihartzunak areto guztian entzuten dira. Askatasun beharraren katarsi bat da, amatasunaren momentu gogorretan denarekin apurtu nahiaz hitz egiten diguna.

Amaitzeko, bi bideo ikusgai dituen etxetxoa aipatuko dugu. Batean Cecilia Bartolome-ren *Margarita y el Lobo* ipuinaren interpretazio bat egiten da eta besteak maitasun erromantikoari kritika egiten dio, Fernanda Laguna olerkigile eta artista argentinarraren *Lama* olerkian oinarrituz; horrela neskatila baten bitartez etxearen preso garen emakumeon irudikapen bat egiten du, etxea txukun eta garbi mantendu behar den jauregi batekin parekatuz<sup>44</sup>.

Esanguratsua iruditu zaigu Ana Casasen lanaren ostean emakume artista hauen lana aditzera ematea, interesgarria delako indibidualtasunetik talde-lanera ematen den pausoa. Emakumeen kezka, ardura eta gogoeta pertsonalak azaleratzen doazen heinean eta hauek ikusiak, ulertuak eta aintzat hartuak izaten ari diren neurrian, hauen elkartzeko eta indartze nahia esponontzialki hazten ari dela dirudi. Carolina del Olmo-k *¿Dónde está mi tribu?* liburuan lankidetzako ideia hau defendatuko du egun eratua dugun amaume burbuila isolatuaren aurrean<sup>45</sup>.

---

<sup>44</sup> Ibid.

<sup>45</sup> VARELA, J.: "Carolina del Olmo, ¿Dónde está mi tribu? Maternidad y crianza en una sociedad individualista", *Revista Teknokultura*, 11, 2014, 219-222 orr. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/5372385.pdf> (2018-05-19an kontsultatua).

## ONDORIOAK

Lan honen bitartez egungo arteak amatasuna nola lantzen duen azaleratu nahi izan dugu. Gure gaiari heldu aurretik, arteak amatasuna bezalako gai pribatuari buruz hitz egitea posible egin duen mugimendu feministari atal bat eskaini nahi izan diogu.

Hauek ekiniko bideak noranzko aniztasuna onartzen du. Bihurgune eta bidegurutzeak naturaltasunez bereganatu eta gainditzten saiatzen dira emakumeak. Sentikortasun berezia adierazten dute alderatuak eta mespretxatuak sentitu diren gizataldeekin, arraza, erlijio, adin, sexu(alitate) edo ezgaitasunen bat dutenekin. Gizartea bere osotasunean ulertzeko ikuspegi berri bat sortu dute, pluralagoa, zabalagoa. Ezberdina dena arautik atera beharrean ezberdintasuna arautu nahi dute.

Gorputza euskarri garrantzitsua izan da artea landu duten emakumeetan. Urteetan objektu sentitu izana baliabide bilakatu dute honen indar estetikoaz oharturik. Izana eta bizi esperientziak gai bihurtu dituzte itxurakeria eta hutsalkeria nagusi den gizartean. Pribatutasuna eta intimitatea bizimodu izatetik bizipenak partekatu eta aztergai izatera iritsi dira. Amatasuna ezjakintasunaren esparrutik atera dute, ama idealaren mitoa apurtu eta errealitate ezezagun bat azaleratu dute. Ikusleari, gizarteari, ezkutuan eta isilpean gordetzen zen problematika bat mahaian gaineratu diote. Eztabaida ireki da.

Amatasuna eta aitatasuna, seme alaben zaintza, etxeko egin beharren ardura, lan profesionalaren eta familiaren bateragarritasuna... gizartearen egunerokotasunean sufritzen diren arazoak dira. Egungo gazteek, guraso izatea lan egoera duina izan arte atzeratu nahi dute, baina ugalkortasun arazoak sortzen dira haurdunaldi adina atzeratzean. Bestalde, guraso direnek lana eta etxea uztartu ahal izateko laguntzen beharra aldarrikatzen dute eta aiton-amonek euren zaintza lanak etenik gabe luzatuak ikusten dituzte burujabetza ekonomikoaren murrizpenak pairatzen dituzten bitartean.

Emakumeen arazo bat izatetik urrun, amatasunaren gaiak, aitatasun berrien ereduak, familia plangintza berriak, sexualitate hezkuntza beharra edo identitate onarpena jorratzea biltzen du bere baitan. Artea gizartearen lagin bat besterik ez da. Amatasuna artegintzan lantzearen arrazoia gizarteak gaiarekiko duen kezka eta arduraren isla bat da. Konponbidea ez zaigu arlo artistikotik etorriko, ez baita hori artearen funtzioa baina konpromiso soziala azaleratu, inplikazio handiagoa, sakonagoa eta esperientziak eskaintzen duen sentimendu nahaspilatsua aditzera emateko balio dezake. Artistek, emakume zein gizonezkoek, gizartearen aniztasuna eta ongizatearen

aldeko apustua egiten dute beraien lanen bitartez. Hau eskertzeko gauza da, ez baita erreza, gaur egun errukirik gabe kritikatuak izango direla jakinik, zintzotasunez ikuslearen aurrean sentimenduz eta gorputzez biluztea. Gure aldetik, miresmena eta errespetua zor diegu artista guzti hauei beraien intimitatea gurekin partekatzeagatik, artea zaugarritasunaren aurretik jartzeagatik. Azken finean, artearen bitartez, gizatasunaren edertasuna aniztasunean eta konplexutasunean dagoela gogorarazteagatik.



## BIBLIOGRAFIA

ALIAGA, J.V.: “Madre hay más de una: unas notas sobre la maternidad, la historia y el arte”, *Metode*, 62, 2010, 122-129 orr.

ALONSO, M.: “Arte, feminismo y maternidad”, *M- arte y cultura*. 2015-03-19. [www.m-arteyculturavisual.com/2015/03/19/arte-feminismo-y-maternidad/](http://www.m-arteyculturavisual.com/2015/03/19/arte-feminismo-y-maternidad/) (2018-03-31ean kontsultatua).

AMORÓS, C.: *Diez palabras clave sobre mujer*. Lizarra, Verbo Divino, 1995, 10. orr.

BARCENILLA, H.: “Gizonen kontuak”, *Berria*, 2016-03-08. [https://www.berria.eus/paperekoa/1842/041/001/2016-03-08/gizonen\\_kontuak.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1842/041/001/2016-03-08/gizonen_kontuak.htm) (2018-04-03an kontsultatua).

BENEDITO, C.: “Feminismo, género y labores reproductivas”, *AusArt*, 5, 1, 2017, 103-115 orr. [www.ehu.es/ojs/index.php/ausart/article/view/17782](http://www.ehu.es/ojs/index.php/ausart/article/view/17782) (2018-03-31ean kontsultatua).

CARRO, S. eta MARTÍNEZ, S.: “Animales domésticos. Colectivo Offmothers”, *La Escena*, 2017-09-15. <http://www.laescena.es/animales-domesticos-colectivo-offmothers/> (2018-05-11ean kontsultatua).

CASAS, A.: *Kinderwunsch*. Madril, La Fábrica, 2013.

DE MIGUEL, A.: “La articulación clásica del feminismo y el socialismo: el conflicto clase-género”, in DE MIGUEL, A. eta AMORÓS, C.: *Teoría feminista: de la ilustración a la globalización*, 1. liburukia. Madril, Minerva, 2005. 295-332 orr.

DELPHY, C.: “A Materialist Feminism is possible” in DELPHY, C eta LEONARD, D. *Feminist Review* 4. London, Palgrave Macmillan Journals, 1980, 79-105 orr.

ELUSTONDO, I.: “Zenbat lan egiten den isilean”, *Berria*, 2016-03-15. [https://www.berria.eus/paperekoa/1753/030/001/2016-03-15/zenbat\\_lan\\_egiten\\_den\\_isilean.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1753/030/001/2016-03-15/zenbat_lan_egiten_den_isilean.htm) (2018-04-03an kontsultatua).

FRAGUAS, A.: “Sobre actrices porno y salirse de la norma.” *El País*, 2011-12-08. <http://tentaciones.elpais.com/2011/12/sashaymadison.html> (2018-04-05ean kontsultatua).

GAMBA, S.: “Feminismo: Historias y corrientes” in GAMBA, S. (coor.): *Diccionario de estudios de genero y feminismo*. Buenos Aires, Biblos, 2007. <http://www.mujaresenred.net/spip.php?article1397> (2018-03-21ean kontsultatua).

LLOPIS, M.: *El postporno era eso*. Bartzelona, Melusina, 2010.

LLOPIS, M.: *Maternidades subversivas*. Tafalla, Txalaparta, 2015.

MAYAYO, P.: *Historias de mujeres, historias del arte*. Madril, Cátedra, 2003, 110-111 orr.

MIES, M. eta SHIVA, V.: *Ecofeminismo*. Bartzelona, Icara, 2013.

MURRAY, G.: “The Sweet Spot: Ex-Porn Star Sasha Grey reads to little kids—So What?”, SFWeekly, 2012-04-13. <https://archives.sfweekly.com/exhibitionist/2012/04/13/the-sweet-spot-ex-porn-star-sasha-grey-reads-to-little-kids-so-what> (2018-04-05ean kontsultatua).

NOCHLIN, L.: “Por qué no ha habido grandes mujeres artistas” <http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/87/78/48778.pdf> (2018-03-30an kontsultatua).

PADRON, E.: “Lo personal es politico”, *Trama y fondo: Revista de cultura*, 27, 2009, 105-110 orr. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3324087> (2018-05-12an kontsultatua).

PALOMO, A.: “¿Es ahora el feminismo más sexual que nunca?”, *El País*, 2016-11-21. [https://elpais.com/elpais/2016/10/19/tentaciones/1476890584\\_748104.html](https://elpais.com/elpais/2016/10/19/tentaciones/1476890584_748104.html) (2018-05-10ean kontsultatua).

POLLOCK, G.: “Feminism and modernism” in PARKER, R. eta POLLOCK, G.: *Framing feminism*. London, N.Y, Pandora, 1987, 89. orr.

POLLOCK, G.: *Visión y diferencia: Feminismo, feminidad e historia del arte*. Buenos Aires, Fiordo, 2013.

PRECIADO, B.: “Entrevista con Beatriz Preciado”, *Parole de queer*, 4, 2009-2010, 13-19 orr. [https://www.scribd.com/fullscreen/80232942?access\\_key=key-316k81whbmxollpnsyk](https://www.scribd.com/fullscreen/80232942?access_key=key-316k81whbmxollpnsyk) (2018-05-11ean kontsultatua).

SALCEDO, I eta MARTÍNEZ, R.: “Kinderwunsch: buscando la identidad a través de la maternidad”, *Minerva: Revista de Circulo de Bellas Artes*, 25, 2015, 35-35 orr. <http://www.circulobellasartes.com/revistaminerva/articulo.php?id=656> (2018-05-10ean kontsultatua).

SANCHO, M.: “Maternidades subversivas”, *Asparkia: investigación feminista*, 29, 2016, 196-199 orr. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=5801892> (2018-05-11ean kontsultatua).

SARASOLA, A.: “Ikusten ez direnak”, *Berria*, 2016-03-20 [https://www.berria.eus/paperekoa/1973/041/001/2016-03-20/ikusten\\_ez\\_direnak.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1973/041/001/2016-03-20/ikusten_ez_direnak.htm) (2018-04-03an kontsultatua).

URÍA, P.; PINEDA, E.; OLIVÁN, M.: *Polémicas feministas*. Madril, Revolución, 1985, 102. orr.

VARELA, J.: “Carolina del Olmo, ¿Dónde está mi tribu? Maternidad y crianza en una sociedad individualista”, *Revista Teknokultura*, 11, 2014, 219-222 orr. <https://dialnet.unirioja.es/download/articulo/5372385.pdf> (2018-05-19an kontsultatua).

## WEBGRAFIA

“Ana Casas Broda. Kinderwunsch” *Circulo de Bellas Artes de Madrid*  
<http://www.circulobellasartes.com/exposiciones/ana-casas-broda-kinderwunsch-phe15>

(2018-04-18an kontsultatua).

ANDONEGI, E.: *Isilean* <https://vimeo.com/112256380> (2018-04-05ean kontsultatua).

“Colectivo Offmothers: Casa tomada” *Laboral centro de Arte y creación Industria.*  
<http://www.laboralcentrodearte.org/es/exposiciones/casa-tomada> (2018-04-20an

kontsultatua).

“Colectivo Offmothers” *Laboral centro de Arte y creación Industria.*  
<http://www.laboralcentrodearte.org/es/recursos/personas/colectivo-offmothers/view>

(2018-04-20an kontsultatua).

“Entrevista: Pello Ulazia Ibarzabal” *Emakunde*  
<http://www.emakunde.euskadi.eus/informacion/entrevista-pello-ulazia-ibarzabal/u72-cogizon/es/>

(2018-03-31an kontsultatua).

“Excedencias, permisos y reducciones de jornada” *Instituto de la mujer y para la igualdad de oportunidades.*  
<http://www.inmujer.gob.es/MujerCifras/Conciliacion/ExcedPermisos.htm>. (2018-05-

09an kontsultatua).

JOUVET, E.: *Aria* <https://www.emiliejovet.com/aria-le-film> (2018-04-06an kontsultatua).

JOUVET, E.: *My body my rules* <https://www.emiliejovet.com/my-body-my-rules> (2018-04-06an kontsultatua).

LUEJE, J.: *Offmothers montaje 2* <https://vimeo.com/232802790> (2018-04-20an kontsultatua).

“Pello Ulazia, isilean, etxeko espazioaz eta bertako jardueraz” *Euskadi Irratia*  
<http://www.eitb.eus/eu/irratia/euskadi-irratia/programak/arratsean/audioak/osoak/3916824/pello-ulazia-isilean-etxeko-espazioaz-eta-jardueraz-----/>

(2018-04-03an kontsultatua).

*Zinegoak, el Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas gaylesbotrans de Bilbao.*  
<http://www.institutfrancais.es/bilbao/eventos/zinegoak-2018-festival-de-cine-lgtbi-de-bilbao/> (2018-04-06an kontsultatua).